



UBIESA

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua funtziona dezan, hainbat baliabide behar ditugu. Hasteko, produktua ekoiztu ahal izateko behar diren lehengaiak. Horretarako, gure kontaktuak ekarri egingo dizkigute ondoren gure makinetan produktua egin ahal izateko. Ekoizpenean oinarrituta, laburtzeko esan dezakegu produktua sortzeko makinak eta behar diren beste edozein baliabideak behar ditugu.

Ondoren behar ditugun beste baliabideen artean, langileak daude. Hauek enkargatuko dira lan praktikoa egiteaz. Esperientzia izatea oso garrantzitsua da abilezia bezala. Bi gauza hauek dituen pertsona batek errazago izango du lan postua, normalean arlo batean berria den edozein pertsonari hasieran kostatzen saiolako erritmoa hartzea.

Azken baliabideak, produktua garraiatzea eta saltzea dira. Honetarako kamioiak eta kamioneroak edukiko ditugu horretaz enkargatuko direnak.